

# B

BARREN

TOKIKOM



**Eli Ibarra  
historia egiten**

# ZUGARRAMURDIRA FAMILIA IRTEERA IX. Euskal Titiriteroen Topaketa



APIRILAK 5, zapatua

## IZEN EMATEA:

Epea: apirilaren 1. era arte (plaza mugatuak) / hasta el 1 de abril (plazas limitadas)

Prezioa: 8€ (buzkideei 7€)

Non: Ubitarteño bulegoan edo [www.elgoibarkoizarra.com/en](http://www.elgoibarkoizarra.com/en)

Kontu-zenbakia: 2095 5036 58 1070736292

Antolatzailea:



Babeslea



Laguntzaileak



## IMH, zure herrian, zure aukera

## Ingeniaritza DUALA imh

UNIBERTSITATE ESKOLA



DBH Ondoren?  
**ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA**  
(2 urte) eta ondoren lanera edo goi maila ikasten jarraitu...

### Erdi-maila

- Mekanizazioa
- Mantenu Elektromekanikoa

BATXILERGOA Amaitzean? **GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA** (2 urte) eta lanera edo ikasten jarraitu...

### Goi-maila (DUALA ERE: 2. maila)

- Fabrikazio mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika industriala

... goi-mailako **Heziketa Zikloa** amaitu ondoren edo Batxilergoaren ondoren: **INGENIARITZA DUALA** (4 urte) ikasi eta lan alternantzia

### GRADUA:

- Prozesu eta Produktu Berruntzan Ingeniaritza

# Informazio saioa: apirilaren 5ean, 11:00etan

etortzeko deitu 943744132ra edo apunta zaituz [www.imh.es](http://www.imh.es) web gunean

# B

GARRÉN

## GIDA 2014

Elgoibar - Mendara



# 2014 KOMERTZIO ETA ENPRESEN GIDA

## Elgoibar eta Mendaroko komertzio eta enpresen gida prestatzen dihardugu

Zure enpresaren helbidea edo telefono zenbakia eguneratu nahi badituzu, deitu 943 744 112 edo 943 743 704 zenbakira edo idatzi [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com) helbidera.



Esti  
Gonzalez

Udaberrian sar-  
tu berri eta he-  
mentxe gara be-  
rriro, Miren, orain-  
goan kezka handie-  
kin gainera. Azken egu-  
notan ez dut albistegirik gal-  
tzen, eta ahal dudan guztietan  
kezkatzen nauen gai baten inguruko be-

rriri bila nabil Interneten. Zerk kezkatzen nauen hainbeste galdetuko duzu. Ba Ukraniako egoerak, Miren, eta hangoen egoerak batez ere. Dakizun moduan, gure familiaren zatitxo bat han dago, eta egunero ezintasunaren sentsazioak gainezka egiten dit. Oraingoan ezin dut gauza handirik egin bereaiei laguntzeko.

### “Ukraniako egoerak kezkatzen nau, Miren, gure familiako zatitxo bat han dago eta”

Astebete barru argitaratuko da hau eta ordurako, agian, egoerak okerrera jo du, egunetik egunera tentsio gehiago baitago estatu guztian, hegoaldean batez ere, Krimeako penintsulan hain zuzen. Eta ez nator han duten gatazka politikoari buruz hitz egitera. Ez dut nahi. Ni ez naiz *pro-rusa*, ezta *pro-europea* ere. Horrek guztiak ez dit axola, egia esan. Pertsonak kezkatzen naute, pertsona bakoitzaren atzean dagoen istorioak. Nire “udako” ahizpatxoa hantxe dago, telebistari pegatuta, egunero, berrien zai. Zer gertatuko da gaur? eskolara noa, eta bueltan denak berdin jarraituko ote du? Bitartean ama Kiev-era, lanera. Eta amona etxean, bere bi kuttunak noiz iritsi zain. Egunero kopia bera. Ba al dakizu batzuetan janari gabe geratzen direla hango dendak? Ezin kilo bat irin aurkitu herri guztian. Eta okerrera, eskolako jangelako janaria kendu dietela, estatuak ez omen du dirurik eta. Orain ume bakoitzak ahal duena eraman behar du jateko, eskolan ez dute janaririk eta. Zaila egiten zait gure udako loretxoa egoera hau bizitzen dagoela imajinatzea.

Azkenean, gatazka guztietan bezala, ahulenak dira kaltetuen irtetzen direnak. Eta kasu hau ez da salbuespen bat. Ea udaberriko loreekin batera, bake printzak ere jaiotzen diren.



Miren  
Vives

Bai, Esti. Ez da egoera samurra zure ahizpa ukrainiarra eta bere familiarena. Arazo politiko-ekonomiko hauei aurpegia jartzea gauza bat da; aurpegiak gain, historia amankomuna eta harreman estua daudenean barruak buelta asko ematen dizkigu. Zoritxarrekoa benetan Ukrainiar herria jasaten ari den egoera; zoritxarrekoa norbanako

ukrainiar bakoitza, bere bizitzako egunerokotasunean sufritzen ari dena, ez baitute Europak edo Errusiak berehala behintzat konponduko.

Badirudi beti gauza berdinetara goazela adibide ezberdinekin: gai garrantzitsuak boterearen jabe direnek lantzen dituztenak dira. Bitartean, herritar xumeak zeharkako kaltetuak bilakutzen gara, “guztion onerako” ezinbesteko ordaina. Batzuk boterearen txapela jantzita makilak (makilak balira sikiera) astintzen, eta besteak ondorioak pairatuz, eguneroko bizitzaren (bizitza balitz, sikiera) sostengu.

### “Eta zein da gure egitekoa?”

#### Zer egin behar dugu Mendaro eta Elgoibartik?”

Eta zein da gure egitekoa? Zer egin behar dugu guk Mendaro edo Elgoibartik? Munduan gertatzen ari dena ahaztu gabe, bide egokiak hemen eta orain aukeratzean dago kokka. Eta ez da kokka makala! Globalki pentsatu eta lokalki ekin esan ohi da. Baina sentimendu globalei buruz ari gara gaurkoan; babesgabetasunaz, ziurgabetasunaz, maite ditugunenganako arduraz. *Think Global* maskulinizatuaren aurrean *Feel global*, alegia. Arduratzeaz gain geure buruak ahaldundu eta justuak diren zioei heltzea baino ez zaigu gelditzen. Desmond Tutuk esana da “Injustiziaren aurrean neutrala baldin bazara, zapaltzailearen aldeko apustua egin duzu”.



**ELENA**  
ileapaindegia  
Depilazio Elektrikoa  
San Frantzisko 49 - I Tel.: 943 741 189

**Bazar Sigma**  
DENDA BERRIA  
ZABALDUKO DUGU!  
Xixilion 1 - Tel.: 943 567 291

# Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARRE**Nek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi, Ainara Argoitia KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarrugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50  
KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



ELGOIBARKO UDALA

elgoibar  
biZi biZikar



MENDAKORO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



## ■ GUTUNAK



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Aparkalekuen harira

Elgoibarren gero eta handiagoa da aparkatzeko arazoa. Egun osorako kanpotik gatoroz behintzat gero eta zailagoa daukagu aparkatzea. Goiko auzoetan ez bada, ia-ia ezinezkoa da. Udalak agindu du aparkaleku berria egingo duela Pilarren, baina irudipena daukat geldi dagoela hori. Harrigarria egin zitzaidan, gainera, Pilarren 51 autorentzako lekua baino ez zela egongo jakinarazi zutenean. Arrazoia eman zuten, eta sinistuko diet ez dutela gehiagorentzako lekua egiteko modurik izan, baina deigarria, behintzat, bada. Hori entzun nuenean ariketa ere egin nuen. Trenbide ondoko aparkalekuan zenbat auto sartzen ote ziren zenbatzera joan nintzen, eta hara nire sorpresa!: 50 auto zeuden, Pilarren sartuko direnak baino bat gutxiago. Pilarrekoa aparkatzeko arazoarentzako irtenbide moduan saltzen ari da Udala, eta horren harira dator nire idatzia. 51 autorentzako aparkalekua egitea irtenbidetzat hartu behar bada, zergatik ez dute gehiago egiten Trenbide kalekoa konpontzeko? Aldizkari honetan bertan askotan ikusi dut kexa hori, eta aitortuko dizuet neuk ere jarrri izan dudala. Herrigunean dago, zuloz beteta jarraitzen du, eta gutxienez 50 auto sartzen dira!

A.Z. ©

## ORDU ALDAKETA DOMEKAN

Asteburu honetan udako ordutegian sartuko gara, eta ordua aldatu beharko da. Hortaz, domekako 2:00etan, ordubetez aurreratu beharko da ordularia.



## 1.300 bizkotxo zati banatuko dituzte bihar Kalegoen plazan

Gipuzkoako zazpi pastelgile artisaturen ekimenez antolatu dute biharkoa, eta tartean daude Muruamendiaraz gozotegikoak



*Muruamendiaraz gozotegiko koadrila, gozodenda aurrean.*

**P**astelgintza artisaua sustatzeko, eta aldi berean bezeroei eurrikiko duten lehialtasuna eskertzeko, pastel erraldoi bat osatuko dute bihar Elgoibarren Gipuzkoako zazpi gozogile ezagunek, tartean Elgoibarko Muruamendiaraz gozotegikoek. Goringo xigortudun bizkotxo tarta izango da, eta guztira, 1.300-1.500 razio artean banatuko dituzte, doan, Muruamendiaraz gozotegiko Juanjo Baztarrika pastelgileak aurreratu duenez. Bizkotxo tartarekin batera, gainera, txokolate beroa ere banatuko dute.

Zazpi dira, esan bezala, ekimen honetan parte hartuko dute gozogileak: Donostiako Geltoki eta Barrenetxe, Tolosako Gorrotxategi, Ordiziko Unanue, Zarauzko Sayalero, Azpeitiko Egaña eta Elgoibarko Muruamendiaraz. Pastelak taldea osatzen dute guztiek, eta helburu batek elkartzen ditu: gozogintza artisaua ezagutarazi eta bultzatu nahiak. Krisiak gozogintzan dihardutenei ere eragin diela ohartarazi dute, eta horrek eraman dituela elkartzera. “Ez dago garai bateko bizipozik kalean. Guk zorionez eusten diogu, baina bezeroei esan nahi diegu hor gaituztela. Zerbait gehiago ordaindu behar dela gurea? Bai, baina eguneko lana da gurea, eta eguneko produktuak erabiltzen ditugu”, nabarmendu du.

Pastelak taldeak ez du berez elkarte izaerarik; gehiago da tarteka hitz egiteko eta elkarrekin gauzak egiteko batzen den taldea. Pastelgintza artisaua sustatzeko ekin zioten pastel erraldoiak egiteari, eta biharkoa kalean egingo duten hirugarrena da. Donostian egin zuten aurrenekoa, arraun itxurako tarta handi bat, eta Azpeitian bigarrena, sagar tarta erraldoia. Bi kasu horietan lanik handiena pastelgintzako lantegian egin zuten, nork bere parte, eta kalean bukatu zuten gero. Hala egingo dute bihar ere. “Lana banatu egingo dugu. 44 bat bizkotxo tarta egin behar dira, 30x20 tamainakoak, eta horiek banatu egingo ditugu. Gure eguneko lanak bukatutakoan egingo ditugu horiek, eta bihar arratsaldean bost edo sei pastelgile ariko gara horiek mahaietan jarri, goringoa zabaldu, azukrea bota eta erretzen”. Sei laguneko taldea baino handiagoa topatuko du lanean, baina, bihar 17:00etatik aurrera Kalegoen plazara gerturatzen denak. “Denen beharra izango dugu. Etxeko guztiak ibiliko gara, baita jubilatutakoak ere”, esan du Baztarrikak. Jenerotan erabiliko dutena ere ez da gutxi. Izan ere, 510 arrautza, 24 kilo azukre, hamabi kilo eta erdi irin eta 25 litro esne beharko dituztela kalkulatu dute.

## Hondakinen %35,7 gaika bereizita bildu da Debarrenan martxoa bitartean, iaz denbora berean baino %6 gehiago

laz baino bi aldiz materia organiko gehiago bildu da, bereizita

**D**ebabarrenako mankomunitatean “modu esanguratsuan” hobetu dira gaikako bilketaren emaitzak urteko lehenengo bi hilabeteetan. Hala jakinarazi du mankomunitateak berak prentsa ohar bidez. Urtarrilean eta otsailean, hondakinen %35,7 gaika bereizita jaso zituzten, iaz bi hilabete horietan jaso zena baino %6 gehiago beraz [%29,62 izan zen iaz]. Mankomunitatearen esanetan, emaitza horiek erakusten dute materia organikoaren bilketan igoera nabarmena izan dela [ia bikoiztu egin da]: 2013. urtean hilabete bakoitzean batez beste 126.102 kilo bildu ziren, eta 2014an, 234.735 kilo. Gainerako honda-

kinei dagokionean ere datuak positiboak direla nabarmendu dute.

Udalerri dagokienean, aurrerapauso handienak Eibarren eman dituzte, hamar puntuan igo delarik han gaikako bilketaren ehunekoa: 2013an %29,84koa izan zen, eta 2014an, %39,66 izan da. Eibarren atzetik dator Elgoibar (%38,51) eta ondoren, Soraluze (%36,51), Ermua (%36,36), Mutriku (%31,23), Deba (%26,88), Mendarri (%20,42) eta Mallabia (%18,76).

### Igoerarik handiena Eibarren, eta hurrengo, Elgoibarren

Eibarren kasuan, materia organikoaren bilketan parte hartzen duten bizilagunei ta-

sak ez igotzeko Udalak egindako kanpainari esker, hirukoiztu egin da parte hartzaile kopurua, eta lortu da biztanleen %95etik gora inskribitzea; guztira, 19.637 familia. Elgoibarren, Ermua eta Soraluze ere egin dira antzeko kanpainak bosgarren edukiontzia jartzeko, eta kanpaina horiei esker lortu da partaidetza %60tik gorakoa izatea. Zehazki, hemen, Elgoibarren, 2.792 familiak eman dute izena, biztanleen %63k, hain zuzen. Ermuan 3.806 familiak izena eman dute (biztanleen %60), eta Soraluzean, 1.216 (%78).

Gaikako bilketaren datu horietan ez dituzte kontuan hartu garbiguneetako eta industrialdeetako bilketei buruzko datuak.

## Bihar Bilboko Casillan egingo den ekitaldirako autobusa Elgoibartik



Herriz herri egiten ari den lana erakutsi eta lan horri bultzada emateko, ekitaldi berezia antolatu du Gure Esku Dago mugimendua biharko, eta Elgoibartik autobusa jarriko dute hara joateko. 17:30ean izango da ekitaldia, Bilboko Casillan, eta 16:00etan irten-go da autobusa Elgoibartik, Txankakoatik. Interesatuak Iturri tabernan eman behar dute izena. Bestalde, Elgoibarko Gure Esku Dago taldeak jakinarazi du herriko elkarte, alderdi politiko eta sindikatuentzako aurkezpen bilera antolatu dutela apirilaren 7rako (19:00etan, Kultur Etxeko Sotoan). Era berean, gogorazi dute mugimenduan lagundu nahi dutenek bileretara agertzeko aukera dutela edo bestela [elgoibar.gureeskudago@gmail.com](mailto:elgoibar.gureeskudago@gmail.com) helbidera idatzi. Goian, zapatuan Kalegoen plazan atera zuten taldeko argazkia.

## Ekitaldia **LOMCEren kontrako protesta**



Batxilergoko eta unibertsitateko ikasleak grebara deitu ditu Ikasle Abertzaleak taldeak LOMCEren kontra, eta Elgoibarko ikasleak ere irten ziren atzo kalera protestan.

## Hezkuntza **Lanbide Heziketa**

Estereotipoak hausteko ginkana egin dute Mekan, Osasunaren Astearen barruan. Mariasun Larrañaga Meka ikastetxeko zuzendariak berak esan du oraindik orain parekidetasunerako bidean asko dagoela egiteko eta hori nabarmena dela Lanbide Heziketan ere. "Gaur, oraindik, Haur Hezkuntzako edoeta Osasun zaintzarako modueletan matrikulatzen diren ikasle gehienak emakumezkoak dira, eta elektromekanika, galdaragintza eta soldadura eskoletan gizonezkoak". Hori hausteko antolatu dute aurten ginkana. Hala, Mekako ikasleak alor ezberdinetan jarri ziren lanean. Elektromekanikakoak biberoiak prestatzen aritu ziren, esate baterako, eta osasungintzakoak soldatzen eta gurpilak aldatzen.



## **Bularreko minbiziaren inguruko hitzaldia, Mendaron**


Bularreko minbiziaren prebentzioa izenburuko hitzaldia eskainiko du Mendaron Arrate Plazaola Donostiako Onkologikoko sendagileak. Apirilaren 3an izango da hitzaldia, 18:00etan, udaletxeko pleno aretoan. Katxalin elkarteak antolatu du hitzaldia, bularreko minbizia dutenen Gipuzkoako elkarteak.

## **Autobus zerbitzua hobetzeko batzarra, apirilaren 10ean**

Gipuzkoako Foru Aldundiak bilera erronda hasi du herriz herri, autobus zerbitzua hobetzeko. Elgoibarrera apirilaren 10ean etorriko dira. Kultur Etxean izango da batzarra, 18:00etan hasita. Batzar horretan Foru Aldundiko ordezkariak gaur arte herriz herri egin dituzten 56 batzarretan jasotako ekarpenen berri emango diete herritarrei, eta aldi berean, nor bere ekarpenak egiteko aukera ere izango du. Bilerara joan ezin duenak [www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net) helbidean egin ditzake ekarpenak.

## **Alberto Hijano hirugarren, Kimikako Euskadiko Olinpiar Jokoetan**

Fisikan ez ezik, Kimikan ere izugarri ondo moldatzen dela erakutsi du Alberto Hijano gazte elgoibartarrak. Kimikako Euskadiko Olinpiar Jokoetan parte hartu zuen martxoaren 21ean, Leioan, eta hirugarren sailkatu zen elgoibartarra, lehenengoarengandik hiru puntu eskasera. Ordiziako Institutuko Maite Odriozola gailendu zen eta Santurtziko Kantauri BHI Institutuko Eneko Martin sailkatu zen bigarren.





# ELI IBARRA

FUTBOLARIA

**“Emakumezkoen futbola asko ari da hobetzen zentzu guztietan, baina oso poliki”**

Eli Ibarra Athleticeko jokalaria elgoibartarrarentzat partida berezia izan zen joan den asteburuan Lezaman Valentziaren aurka jokatu zuena, Bilboko taldearekin ligan jokatu zuen 300. partida izan zen-eta. Bera da Athleticekin partida gehien jokatu dituen emakumea. Ibarrak hamabi sasoi daramatza Athleticen, emakumeen taldea sortu zutenetik, hain zuzen ere. 32 urte dauzka eta 336 norgehiagoka jokatu ditu Athleticekin 2002tik hona: 300 Ligan, 25 Espainiako Erreginaren Kopan eta 12 partida Europako txapelketetan. Golegileen zerrendan ere goian dago, bigarren postuan hain justu ere, 105 gol sartuta, horietako 98 ligan. Eli Ibarra historia egiten ari da Athleticen.



**300 partida jokatu dituzu ligan talde txuri-gorriarekin eta zeu zara Athleticen partida gehien jokatu dituen emakumea. Zer sentitzen duzu?**

Niretzako ohore bat da, eta oso pozik nago. Inoiz ez duzu pentsatzen zifra horietara iritsiko zarenik! Atzera begiratzen baldin badugu partida pila bat dira.

**Lau liga irabazi dituzu Athleticekin eta gol gehien sartu dituztenen zerrendan bigarren lekuan zaude, 105 golekin. Ezbairik gabe, historia egiten ari zara. Athletic-era iritsi zinenean espero zenuen hau guztia?** Ez, lehen esan dudan bezala sekula ez duzu horrelako gauzetan pentsatzen. Urteak oso azkar pasatzen dira, baina egia esanda kopuru handia da.

**Zelan doa aurtengo denboraldia? Zein da zuen helburua?**

Gure helburua beti Liga irabaztea izaten da, eta, nola ez, Kopa. Aurtengo Liga irabaztea piskat zaila daukagu, baina matematikoki oraindik badaukagu aukera, beraz lanean jarraitu behar dugu.

**Liga, Erreginaren Kopa eta Europako txapelketetan jokatu izan duzu Athleticekin. Zein izan da Bilboko taldearekin bizi izan duzun unerik gozoena?**

Athleticekin irabazi ditugun lau Superligak eta San Mamesen bizi izan ditugun momentuak izan dira gozoenak; horrekin geldituko nintzateke.

**Eta gaziena?**

Gaziena pasa den urtean bizi izan nuen San Mamesen. Denboraldi guztia lehenengo postuan egon ostean, azken partida galdu egin genuen, eta bosgarren Superligak ihes egin zigun. Kolpe gogorra izan zen.

**Athleticen emakumezkoen taldea sortu zenetik ari zara bertan jokatzen. Taldeko beteranoetako bat zara. Nola aldatu da taldea urte hauetan guztietan? Nola dago taldea gaur egun?**

Jendea aldatzen joaten da denborarekin: fitxajeak egiten direlako, jendeak taldea uzten duelako, neska gazteak iristen direlako edo dena delakoagatik, taldea asko aldatzen da. Nik uste dut hori ona dela, baina hobeto izaten da aldaketa horiek gutxinaka ematea.

**Izan al duzu beste talderen batera joateko eskaintzarik? Zergatik erabaki duzu Athleticen jarraitzea?**

Ni oso pozik nago Athleticen; betidanik Athletic zalea izan naiz, eta



inoiz ez dut pentsatu hemendik alde egiterik. Kirol alorrean ez dago Athleticen eskaintza hobetzen duen talde askorik Espainia mailan. Horretarako Espainiatik kanpora joan beharko nintzateke.

**Orain dela urte batzuk Superligako talderik indartsuenetakoa zen Athletic, baina gaur egun konpententzia handiagoa dago. Nola ikusten duzu emakumezkoen futbola?**

Bai, konpententzia gero eta handiagoa da; eta egia esanda, polita dago Liga. Talde onak daude eta edozein taldek jartzen dizkizu gauzak zailak. Guk asko igartzen dugu futbol zelai mota batetik besterako aldea. Euskal Herritik kanpora, talde gehienek futbol zelai artifizialean jokatzen dute, eta guk hori asko igartzen dugu. Emakumezkoen futbola asko hobetzen ari da zentzu guztietan, baina oso poliki. Badaude futboletik bizi diren emakumeak. Batzuk kanpora joaten dira jokatzera, eta hemen ere gero eta talde gehiago dira soldata ordaintzen dutenak, baina alor horretan oso poliki doa dena.

**Zuek Lezaman jokatzen dituzue partidak, eta gizonezkoek San Mamesen. Lortuko al da noizbait emakumezkoen eta gizonezkoen futbola parekatzea?**

Hori oso zaila da. Gizonezkoen futbola beste mundu bat da, eta ezin izango dira inoiz parekatu.

**Espainiako selekzioarekin ere jokatzen duzu. Datorren urtean Munduko Txapelketa jokatuko da Kanadan. Nola ikusten duzu?**

Oraingoz oso ondo goaz: Bost partida jokatu ditugu, eta bostak irabazi. Datorren astelehenean Madrilera goaz, apirilaren 5ean Italiaren kontra jokatuko dugu, eta 10ean Mazedoniaren kontra. Espero dugu Munduko Txapelketa horretan egotea.

**Euskadiko Selekzioak ez dauka ofizialtasunik. Gustatuko litzaizuke lortzea?**

Interesgarria izango litzateke, kirolari euskaldunentzako.

**Noiz arte jarraituko duzu futbolean?**

Inoiz ez dut horretan pentsatzen. Oraingoz ondo sentitzen naiz, eta ez ditut epe luzerako helburuak jartzen.

**Imajinatzen al duzu zure bizitza futbolik gabe?**

Egia esanda, arraroa egingo litzaidake asteburuetan partidarik ez izatea; urte asko izan dira.

**Etorkizunera begira, zein dira zure asmoak?**

Athleticekin bosgarren Superliga irabaztea eta Espainiako selekzioarekin Munduko Txapelketa jokatzea.



# Elgoibarko euskaran



Telmo Fernandez, Nerea Bastida eta Elsa Astigarraga DBH3ko ikasleak 5 urteko gelako haurrei ipuinak kontatzen, euren ikaskidez inguratuta.

**Ahozko hizkera unitatearen barruan, ipuinak elgoibartarrez jarri eta ikastetxeko txikienei irakurtzen dizkiete Elgoibar Ikastolako DBH3ko ikasleak. Ez da kontu berria. Urteak daramatzate horretan, baina orain, ikastetxetik kanpora ere iritsi da egiten ari direnaren oihartzuna. Euskara eta euskalkiak lantzeko egitasmo honek Euskal Herriko Ahotsak proiektuak erakarri ditu Elgoibarrera. Hainbat grabazio egin dituzte ikastolan, gero euren webgunean esegitzeko ([www.ahotsak.com](http://www.ahotsak.com)). BARRENEK ere hartu ditu bideoan: [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net).**

**Ainara Argoitia**



Xabier Lasa, irakaslea.

**Z**ortzi dira ipuin kontalari izateko gertu agertu diren gazteak: Telmo Fernandez, Ane Almenara, Nerea Bastida, Elsa Astigarraga, Nagore Ibarluzea, Ana Zubiaurre, Nekane Agirregomezkorta eta Ainhitze Beristain. Ahotsak egitasmoek duela aste batzuk egin zituzten grabazioetan parte hartu zuten dira, baina hala ere, lotsati agertu dira. 14-15 urte dituzte, eta gaur, 5 urteko 27 ikaslerentzat ariko dira. Txiri, Mirri eta Txiribiton pailazoan ipuin moldatu batekin datoz, eta hasi ordurako

aho zabalik dituzte txikiagoak. Lotsak alde batera lagata, eroso nabari zaie ipuin kontalari, elgoibartarrez ari direla. "Elgoibartarrena eta euskara batuaren nahasketa bat da euren euskara. Euskara batu erabat estandarra egiteko zailtasunak dituzte, eta horregatik, gertuagoko eredu batean egiteko joera dute normalean", aitortu du Xabier Lasa irakaslea. Berak eman dizkigu proiektuaren inguruko azalpenak. Ez daki garbi noiz hasi ziren lanketa honetan, baina urte dezente di-rela dio. Ikastolan Ostadar materiala berritu

eta unitate berriak sartu zituzteneko kontua dela azaldu du. "Unitate berri horiek bukaran proiektu bat garatzea eskatzen dute eta hau bera proiektu horietako bat da". Ahozko euskal literatura gai hartuta emanaldi bat sortu beharra zuten eskolan. Euskara eta literatura lantzeko proiektua da beraz hau, baina zeharka, irakasleei bidea ematen die ikasgelan euskalkia bera eta beste kontu asko era jostagarri batean lantzeko. "Beste eredu batzuk entzuten ditugu, jendearean astiro eta garbi nola hitz egin behar den ikasteko. Ahozkin jokatzeko ere ikasten dute ikasleek, irakurketa dramatizatua lantzen azken batean, eta jendearean lotsa gabe aritzen ikasteko ere lagungarri zaie". Euskalkia bera lantzeari, baina, garrantzia handia ematen dio Lasak. Elgoibartarrak "zorionekoak" direla dio, hemen bertako euskarak bizirik dirauelako eta helduengandik gazteenganako transmisioa gertatu delako. "Ni bizi naizen herrian ez da

transmisio hori gertatu, eta pena da". Urretxuarra da Lasak.

### Euskararen aldeko hautua

Tokian tokiko euskara lantzea zinez aberasgarria dela uste du. "Ikasleek gertukoagoa sentitzen dute herriko euskara, eta bide hori lantzea oso lagungarria izan daiteke gero horiek euskararenganako atxikimendu handiagoa izan dezaten", esan du horren harira.

Lehenengo hiruhilabeteko unitate bati dagokion programa da hau, eta beraz, abendu aldera hasten dira DBHko ikasleak ikasgelaz ikasgela ipuinak kontatzen. 3 eta 5 urte arteko umeak izaten dituzte entzule. Aurrez, baina, elgoibarko hizkerara ekarri behar izaten dituzte ipuinak. Horretarako, Jesus Mari Makazagaren liburua ezinbesteko tresna zaiela esan du irakasleak, eta aitortu du ikastolako irakasle elgoibartarrak eurak ere oso lagungarri izaten zaizkiela unean

unean sortzen zaizkien zalantzak argitzeko.

Elgoibar Ikastolan egiten ari diren honek oinarrian antzekotasun handia du Badihardugu Euskara Elkartek azkena sortu duen *Ahotsak ikasgelan* egitasmoarekin. Ahozko ondarea, memoria historikoa eta belaunaldien arteko transmisioa ikasgelan lantzeko proiektua da *Ahotsak ikasgelan*, eta haren inguruan ere galdetu diogu Xabier Lasari. Ez du zalantzarik egin: "Ikaragarria da Badihardugu euskara taldea egiten ari den lana. Momentuan duen balioa ez dugu beharbada estimatuko, baina hemendik urte batzuetara konturatuko gara horiek egindako guztiaren balioaz. Gaur den horretatik desberdintzen eta urruntzen joango da gure euskara, egunean egunean aldatzen baita hizkera, baina orain egindako grabazio guzti horiek hor gel-dituko dira, eta material guzti horri esker izango dugu aukera gero euskara bera eta bizi-modua bera nola aldatu diren ikusteko".



### JANIRE DIAZ, *Ahotsak* proiektuko elkarrizketatzailea eta editorea

## “Oso aberasgarria da ikastolan egiten ari direna”

**Elgoibar Ikastolan izan zineten grabazioak egiten. Zer balorazio egiten duzue egiten ari diren lanaz?**

Oso aberasgarria da ikastolan egiten ari direna, bai beraientzat, ikasleentzat, eta baita guretzat ere. Euskara, euren hizkera propioa, antzerkia... alor asko lantzen dituzte jolasaren bidez. Guk ere halaxe planteatu genuen egun hartakoa, jolas modura. Elkarrengandik ikasteko bidea eman zigun Elgoibar Ikastolako saioak. Gu 80 bat urtekoekin ari gara lanean, belaunaldien arteko transmisioa lantzen, eta polita izan zen haurrak bihurtzea protagonista. Giro goxoa

sortu zen, eta eroso aritu ginen guztiok. Ilusio handiarekin ikusi genituen, eta asko ikasi genuen elkarrengandik.

**Elgoibar Ikastolan egiten dihardutenak badu antzekotasunik 'Ahotsak ikasgelan' proiektuarekin, protagonistak aldatzen badira ere. Kontaiguzu zein den zuen lehen helburua eta zer nolako emaitzak ari zareten lortzen.**

Gu hemen osatzen ari garen artxibo handi horretako materiala gaztetxoekin konpartitzea, sekulako ondarea daukagulako jasota hemen. Gure helburua da haurrek zaharragoengandik ikastea, asko dagoelako ikasteko: herriko euskara, historia... Eta iruditzen zait gustura hartzen dutela ikasleek, berezia dela haientzat egitasmoa. Proiektu pilotua da oraindik *Ahotsak ikasgelan*, eta poliki-

poliki ari gara, baina emaitzak oso onak direla esango nuke. Parte hartzen ari diren ikastetxeak pozik daude, eta gu ere bai.

**Elgoibarko umeek aitortu ziguten erosoago sentitzen direla elgoibartarrez hizketan, eta hori egunerokoan euskaraz bizitzeko hautua egiteko lagungarri dela uste du irakasleak. Bat zatoz?**

Bai, zalantzarik gabe. Normala da erosoago aritzea, eta era berean, aberasgarria ere bada. Euskara batua ikasten dute ikastolan, baina inguruan entzuten dutena beste bat da, herrikoa, eta horregatik gertukoago egiten zaie. Euskaliek ematen digute nortasuna, eta erosoago sentitzen garen neurrian euskararekiko gure atxikimendua sendoagoa izango da.

# GAZTEMAPPING

## GAZTEEN AISIALDIA IKERTZEKO PROIEKTUA

13tik 30 urtera arteko gazteen aisialdi ohiturak ikertzeko jarri zuen martxan Elgoibarko Udalak Gaztemapping egitasmoa, eta joan zen astean eman zuten ikerketa horretatik ateratako ondorioen berri. 41 gaztek hartu dute parte proiektuan, eta Udaleko arduradunen iritziz, parte hartu duten gazteek interes handia jarri dute prozesuan, eta iker-tzaile lanetan aritu direnek serio lan egin dute. Parte-hartzea handia izan ez bada ere, kualitatiboki 'altua' izan da, eta alde horretatik Udala gustura agertu da: "Gaztemapping prozesuan ikusi eta entzundakoak hartu eta probetxua ateratzen saiatu behar du orain administrazioak, baina pauso gehiago eman aurretik hausnartu egin behar da. Administrazioa gazteek urrutiko zerbait bezala ikusten dutela esan baitute eta gazteei euren aisialdiaz etekina ateratzeko baliabideak eskaintzea nahi badugu, nolabait administrazioak dauzkan baliabideak gazteengana gerturatzen asmatu beharko dugu. Urratsak egingo ditugu, baina bidea ongi egin nahi dugu, presarik gabe", adierazi dute Udaleko arduradunek. Gaztemapping egitasmoa azaltzeko iker-tzaile lanetan aritu den Miren Lahozekin eta proiektua-ren gidaria izan den Aitor Gisasolarekin hitz egin dugu.

Ainhoa Andonegi

### MIREN LAHOZ

#### GAZTEMAPPING EGITASMOKO PARTAIDEA



**Nola animatu zinen Gaztemapping proiektuan parte hartzera?**

Lagun batek komentatu zidan ekimen hau antolatu zutela, eta hiru bat lagun animatu ginen lehenengo bileran parte hartzera. Ez genekien zer zen, baina gure interesa piztu zuen eta aurrera egitea erabaki genuen. Lehenengo bilera hartara jende asko animatu zen eta gustura egon ginen. Beste adin batzuetako gazteekin egoteko aukera izan genuen, eta interesgarria iruditu zitzaigun.

**Gazteentzat eta gazteekin eginiko proiektua izan da. Zer iruditu zaizu mekanismo hori?**

Ondo egon da. Ni ikertzaileetako bat izan naiz, eta ni baino urtebete gazteagoa den lagun bat ikertu dut. Bi astez bere aisialdi ohiturak ikertu behar nituen, bai astebarruan eta baita aste-buruan ere. Berak bazekien bere ohiturak iker-tzen ari nintzela, bere baimena behar nuelako, baina bere izena anonimotasunean geratzen zen ikerketan. Gaurko gazteak oso okupatuta egoten garenez, momentu batzuetan ezin izaten nuen berarekin egon eta berak kontatzen zidan egiten zuena.

**Elgoibarko aisialdiaren diagnostia egin duzue eta ondorio batzuk atera dira. Gustura geratu zarete?**

Interesgarria izan da, bereziki parte hartu dugunontzat, baina oraindik gauza asko daude egiteko. Ikerketa hau abiapuntua izan da, baina orain beste pauso batzuk eman beharko dira. Prozesuan zehar jendea ezagutzeko aukera izan dugu, eta ondo egon da. Gainera Aitor Gisasolak proposatu zuen lan dinamika erraza eta eramangarria iruditu zait. Ondo pasatu dugu.

**Elgoibarko aisialdian zein gabezia ikusten dituzue?**

Adin desberdinen artean erlazionatzeko ekin-tzak falta dira. Sanbartolomeetako Gazteen Egunean adibidez denok elkarrekin ibiltzen gara, eta sekulako giroa sortzen da. Gu elkartzeko ekintzak behar dira. Egia da askotan gauzak eskatzen ditugula, baina gero ez gara ekintzetara joaten. Denon artean egin beharko genituzke proposamenak gure gustuko gauzak antolatzeko, baina hori ere ez dugu egiten. Nik uste dut gauza politikak egin daitezkeela, baina gu hasi behar gara lanean, gure artean koordinatuz.

**Gazteen arteko harremana aipatu duzu, baina koadrila asko gazte-lokaletan blitzen zarete. Ez al da kontraesana?**

Bai, hori ere atera da Gaztemapping ikerke-

tan. Lokalen fenomenoarekin koadrila barruko harremana indartzen da, baina besteekiko isolatu egiten gara. Lokaletik gehiago irten beharko ginatke, eta hori gure esku dago. Ez dut esaten lokalak utzi behar direnik, baina lokala mantenduta ere badago aukera besteekin erlazionatzeko.

### **Zeintzuk dira gaur egungo gazteen kezka nagusiak?**

Etorbizunak asko kezkatzen gaitu. Batxilergoan gaude, eta datorren urterako unibertsitate ikasketak aukeratu behar ditugu eta horrek kezka sortzen du, bereziki lan munduan dagoen egoera ikusita. Eta etorkizun horretarako prestatzen pasatzen dugu denbora asko: eskolan, klase partikularretan... Azkenean gure aisialdirako denbora oso mugatua da. Ni orain ez naiz es-

kolaz kanpoko ekintza askotara joaten, baina, lehen, bai. Etorbizun horretan pentsatzen dugu askotan, eta ikasteko beste gauza batzuk uzten ditugu. Ikasketak garrantzitsuak dira, baina ez da inportanteena. Ni saiatzen naiz denbora libre atera-tzen, baina batzuetan atsedena hartzeko aprobeztatu dut. Eguraldi ona egiten duenean lagunak joaten gara pasiatzera, eta ondo egongo litzateke koadrilakoak bakarrik joan beharrean, beste adin batzuetako jendearekin joatea. Elgoibarren adinka antolatuta gaude gazteak, eta gure artean erlazionatzea interesgarria iruditzen zait.

### **Sarri esaten da gazteak pasiboak direla. Zer uste duzu horri buruz?**

Ez dakit zer esan. Iruditzen zait ikasketek

denbora gehiegi kentzen digutela eta batzuetan erosotasunera jotzen dugula. Baina hori erlatibo da, eta lehenengo gazteen egoera eta gaurkoena ez da berdina.

### **Zer iruditzen zaizu Elgoibarko aisialdi eskaintza?**

Gaztelekuak ahalegin handia egiten du ekintzak antolatzen, baina gu ez gara joaten. Ez dakit zergatik, baina ez daukagu ohiturarik. Inauterietan joan ginen makillaje tailerrera eta oso ondo pasatu genuen. Seguru irteeretan ere ondo pasatuko genukeela, baina ez gara animatzen. Zine eskaintza ere ona da, eta film berriak ekartzen dituzte, baina guretzako garestiegia da. Ikerketan zehar komentatu dugu agian asko eskatzen dugula eta gero ez dugula erantzuten.

## **AITOR GISASOLA**

### **GAZTEMAPPING EGITASMOAREN KOORDINATZAILEA**

#### **Nolako da Elgoibarko gazteen aisialdia?**

Hiru adin tarte aztertu ditugu: 13-17, 18-24 eta 25-30. Konturatu gara adin tarte txikieneko gazteentzako dagoela aisialdi eskaintza zabalena, dela kirolean, kulturean, edo eskolaz kanpoko ekintzetan. Lagunekin egoteko tarte gutxi izaten dute horiek astean zehar. Bigarren adin tartekoek aisialdi ekintza gutxi egiten dituzte aste barruan, seguruenik ikasketek baldintzatuta, eta 25 urtetik aurrerakoek aukeratu egiten dituzte aisialdi ekintzak. Asteburuei dagokienez, gazteenek uste dute badagoela giroa Elgoibarren, baina gainerakoak kanpora joaten dira.

#### **Zer behar dute Elgoibarko gazteek aisialdirako?**

Askotan esaten dute Elgoibarren ez dagoela aisialdirako aukerarik, baina, oro har, nahiko konforme daudela esango nuke. Antolatzaile lanetan jarduten duten gazteren batekin ere hitz egin izan dut eta haiek kexatu egiten dira inor ez delako joaten eurak antolatutako ekintzetara. Proiektuan parte hartu duten gazte batzuek aitortu dute eurek ere ez dutela jakiten zer nahi duten eta antolatzen diren ekintzen berri ere ez dutela izaten azaldu dute. Belaunaldi desberdinen arteko interakzioa eskatzen dute.

#### **Gazteen lokalek indar handia hartu dute. Nola erlazionatzen dira gazteak euren artean?**

Gazte lokalek koadrila barruko harremana indartzen dute, baina beste adin tarte batzuetako gazteekin erlazionatzeko oztopo dira. Horri lotuta konturatu gara neskek lehenago uzten dituztela lokalak, eta lokaletan gehien irauten dutenak Elgoibarren ikasten duten mutilak direla.

#### **Gazteak pasiboak direla entzun izan dugu maiz. Nolakoak dira Elgoibarko gazteak?**

Nik ez nuke esango Elgoibarko gazteak pasiboak direnik. Agian egitasmo honetan parte hartu dutenak saltsero samarrak izango dira, baina nire ustez, gazteak mugitzen dira. Koadrila guztietan daude planak proposatzen dituzten saltseroak eta gainerakoek horiei jarraitzen diete.

#### **Zer izan da egitasmo honetako lanik zailena?**

Denok elkartzeko egunak zehaztea. Uda aurretik egin genituen tailerrak ondo joan ziren, behin ikasketak amaituta denbora libre zeukatelako, baina irailetik aurrera zaila izan da biltzea. Agendak oso beteta dituzte. Gustura geratu gara proiektuak eman duen emaitzarekin, baina konturatu gara zaila dela jendeak parte hartzea. Oso zaila egin zaigu jendea parte hartzera ani-



matzea. Batzuetan ematen zuen jendea konpromisoz etortzen zela. Inplikatuak gazteenak izan dira, adinean aurrera joan ahala bakoitza berera joaten da. Baina berriz, proiektu pilotu bat izan da eta egia esateko gustura geratu gara jaso ditugun emaitzekin.

## Erretratu zaharra



1969

Aste honetako erretratu zaharra Sabin Longartek ekarri du BARRENERA. 1969an ateratako argazkia da. Mendaroko mojen eskola-ko gela bateko umeak ageri dira argazkian, Santimamiñeko kobazuloetara eginiko irteera batean. Gogora ditzagun zeintzuk diren neskatila horiek.

1. Deñe Galdos, 2. ezezaguna, 3. Amaia Zufiaurre, 4. Ama Teresa, 5. Arrate Iriondo, 6. Laura Salegi, 7. Pili Garazo, 8. Ama Isabel, 9. Mari Guerola, 10. Marisa Torronteras, 11. Eurne Arrieta, 12. Miren Alberdi, 13. Mari Jose Aranberri, 14. Mari Karmen Alamiño, 15. Juanita Salegi, 16. Presen Rubio, 17. Angelines Llonin, 18. Gemma Arrillaga, 19. Maria Jesus Urbieto, 20. Arrate Loiola, 21. Amaia Etxeberria, 22. Eva Olazabal, 23. Dominguez, 24. Nemesi Vidal, 25. Arantxa Goikoetxea, 26. Ana Mari Itoitz, 27. Maria Luisa Marcial, 28. ezezaguna, 29. Reyes Prieto, 30. Matilde Idiakez, 31. Jaione Longarte, 32. Amaia Arriola, 33. Rosa, 34. Mari Karmen Rosa, 35. Marivi Ferrero, 36. May de Zafra, 37. Lurdes Muguruza, 38. Esther Ollora, 39. Jone Marin, 40. Mariasun Loiola, 41. Itziar An-sola, 42. Maria Jesus Ronda, 43. Maria Jose Vecina, 44. Maria Isabel Elorza, 45. Maria Jose San Martin.

## Landareak landatzen ikasteko tailerra bihar, hileko azken zapatuko ferian

Kalebarren plazan izango da, eguerditik aurrera

**H**ileko azken zapatuko feria egingo da bihar Elgoibarren, eta eguneko ekintzen barruan, Debe-menek landareak landatzen ikasteko tailerra antolatu du. 12:00etatik 14:00etara egingo dute, Kalebarren plazan. Horrezaz gain, Elgoibarko Danborrada taldekoek pintxoak prestatuko dituzte Kalebarren plazako txosnan. Elgoibarko baserri eta harategietako produktuekin osatutako pintxoak egin eta salduko dituzte.

Egitaraua hilerokoa izango da. 9:00etan zabalduko dute azoka. Baserriko garaiko produktu onenak erosteko aukera izango da bertan. Txosna, berriz, 11:00etan zabalduko dute, eta ondoren, 12:00ak aldera, kale kantariak irtengo dira kalera, herriko kaleak kantuz girotzera. Eguerditik arratsaldera, berriz, ganadu erakusketa egingo da Aita Agirre plazan.



### Iñaki Retolaza izan da hamar zine-bonu txartel bete dituen lehenengoa

Hamar zine-bonu txartel bete ditu Iñaki Retolaza elgoibartarrak. Hau da, 50 film ikusi ditu eta horietatik hamar debalde. Horregatik, zinerako bi sari oparitu dizkio Elgoibarko Udalak. Zine bonua 2013ko urtarrilaren 7an jarri zuten indarrean, eta bera izan da hamar txartel bete dituen lehenengoa.

### Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoan 'Terapia' saioa, hilaren 13an

Txirri, Mirri eta Txiribiton Elgoibarrera etorriko dira apirilaren 13an. *Terapia* saioa eskainiko dute, 16:30etik aurrera, Herriko Antzokian. Sarrerak egunean bertan jarriko dituzte salgai, Herriko Antzokiko lehiatilan bertan.

### Santanetarako jai egitaraua osatzeko ekarpenak jaso ditu Mendaroko Udalak

Joan zen ostegunerako deitu zuen batzarra Mendaroko Udalak. Herritarren proposamenak jaso nahi zituzten herriko jai nagusiak antolatu ahal izateko, eta bilera horri buruz balorazio positiboa egin dute Udaletik. Bost bat koadrila ezberdinetako lagunak batu zirela zehaztu dute eta, besteak beste, honako ekarpenak jaso zituztela: Koadrilen egunean, karroza eta mozorroen desfilea egitea, Galagaua izeneko dantzaldia antolatzea Santio bezperarako, eta herriko merkataritza sustatzeko zozketak egitea.

## Elgoibarko Izarrak bazkideen parte-hartzea sustatzeko prozesua jarri du abian



Elgoibarko Izarrak gizarte-mugimendua izan nahi duela erabaki du bere oinarri filosofoetan. Eta gizarte-mugimendu baten oinarrian jendea eta jendearen parte-hartzea da goenez, bazkideen parte-hartzea eta konpromisoa areagotzeko prozesuari ekin dio. Elgoibarko Izarraren ziklo berriko erronketako bat da bazkideen parte-hartzea eta konpromisoa sustatzea. Bazkide guztiek jasoko dute gutun bat edo e-maila parte hartzeko fitxa eta komunikazio-fitxa betetzeko eskatuz. Apirilaren 16ra arteko epea izango dute bazkide-fitxa betetzeko. Nahi duenak [www.elgoibarkoizarra.com](http://www.elgoibarkoizarra.com) webgunean ere bete dezake fitxa.

# JASONE OSORO

Euskal Idazleen Elkarteko lehendakaria

**Euskal Idazleen Elkarteak (EIE) batzar orokorra egin zuen joan zen asteburuan, Baionan, eta, besteak beste, datozen lau urteetarako lehendakari berria aukeratu zuten: Jasone Osoro idazle eta kazetari elgoibartarra. 1982an sortu zen EIE, Donostian, eta gaur egun 380 bazkide ditu.**



## “Lehendakariaren aulkian ez dut bakarrik egon nahi, talde lanean sinisten dut”

**Euskal Idazleen Elkarteko lehendakari izendatu zaituzte. Nola hartu duzu?**

Hasieran sorpresaz, sekula ez nuen pentsatuko horrelako erronka bat izango nuenik eskuartean. Eta erronka guztiek bezala, honek ere ilusioa eta bertigoa, bietatik eragiten dit. Baina bai Zuzendaritza Batzordekideek eta baita bazkideek ere beraien babesa eskaini didate eta horrek indar ikaragarria ematen du.

**Zein izango da zure zeregina aurrerantzean?**

Azken bi urteotan Zuzendaritza Batzordeko kide izan naiz. Hilero izaten genituen bilerak eta gure zeregina zen gaiak eztabaidatu eta erabakiak hartzea. Aurrerantzean elkartearen irudia izango naiz, eta elkartearen irudia eramango dut alderik alde. Eztabaidak eta erabakiak Zuzendaritza Batzordearen esku daude, lantalde profesionala ere bada-gai praktikoak eta burokratikoak kudeatzeko, eta nik harremanak izan beharko ditut instituzio eta erakundeekin. Baina nik oso argi daukat lehendakariaren aulkian ez dudala bakarrik egon nahi, talde lanean sinisten dut, talde dinamikan, eta hori suspertzea ere izango da gure zereginetako bat. Bazkideak dinamizatzea, idazle berriak erakartzea, idazle profesionalen kohesioa lortzea, idazleen presentzia soziala bermatzea...

**Zein da gaur egun Euskal Idazleen Elkartearen erronka nagusia?**

Lau zutabe nagusi aipatuko nituzke: idazlearen presentzia sozializatzea, bistaritzea, gizarteratzea nolabait. Idazle profesionalaren defentsa egitea. Autofinatzaketarako urrats berriak aztertzea eta idazle berriak erakartzea, senti dezaten haien kezkek entzuten direla, kontuan hartzen direla, babesa dutela, beti euren eskubideen alde, elkarte ez

dagoela ankilosaturia, bizirik dagoela baizik. Noski, hori guztia bazkideen aldetik ahalik eta dinamizatorik handiena lortuz, hori baita bizirik eta osasuntsu irauteko modu bakarra.

**Zer eskaintzen dio EIEk euskal gizarteari?**

Idazlea sortzailea da eta sortzailea etengabe ari da bizitzaren gaineko hausnarketa egiten, interpretatzen. Idazleak aske dira sortzeko orduan eta, besteak beste, ikuspegi kritikoa ere erakusten dute maiz, eta Pako Aristik dioen bezala, gero eta komunikabide gehiago dago, baina geroz eta pentsamendu gutxiago, eta idazleak panorama gris eta homogeneo hori apurtzen du sarritan.

**Zein da gaur egun euskal literaturaren egoera?**

Gizarteko gainontzeko arloetan bezala, literaturan ere dena da efimeroa, oso-oso efimeroa. Idazle berriak agertzen dira, publikatzen dute, badute euren elkarriketa edo albiste laburra komunikabideetan eta gero... galdu egiten dira. Interferentziak etengabeak dira bizitzan, komunikabideak badaude, baina komunikazio gutxi dagoela esango nuke, dena interferentzia etengabez beteta dago. Bestalde, egun, sekula baino euskal idazle gehiago dago profesionala dena, nolabait. Ezagutza dago, jendea euskaraz irakurtzeko gai da, estilo eta tematika aukera zabala dago, eskaintza badago. Eta hori zaindu egin behar da.

**Kazetaria eta idazlea zara. Zein proiektu dituzu eskuartean?**

Kazetaria naiz formazioz, baina egia esan ez daukat kazetari sen handirik eta badira urte batzuk sorkuntzatik bizi naizena. Literaturgintzaren inguruan mugitzen naiz, idatziz, hitzaldiak emanaz, gazteei eskainitako *jaralive* bloga kudeatuz... eta beste pare bat proiektu ere badituz eskuartean.



# ‘Las brujas de Zugarramurdi’ izan da filmik ikusiena Herriko Antzokian

Zine komertzialeko 63 film eskaini zituzten iaz Elgoibarren

Alex de la Iglesia zuzendari bilbotarra-  
ren *Las brujas de Zugarramurdi* izan da  
2013ko filmik ikusiena Elgoibarko Herriko  
Antzokian, 388 txartel salduta. Guztira, zi-  
ne komertzialeko 63 film eman zituzten iaz  
—Kontaktetan ez dira Ongarri Zine Klubak  
eskainitakoak sartzen—, eta hilabetez hila-  
beteko datuei erreparatu gero, azaroan  
(1.483) eta martxoan (1.321) joan zen ikus-  
le kopuru handiena zineraz. Maiatzean, be-  
rriz, 370 ikusle bakarrik joan ziren. (ekaina,  
uztaila, abuztua eta irailean ez dago zine  
emanaldirik Herriko Antzokian). Sarrerekin  
bildutako diru kopurua 43.116 eurokoa izan  
zen.

## Filmik arrakastatsuak

*Las brujas de Zugarramurdi*ren atzetik,  
Peter Jacksonen *The Hobbit: An Unexpec-  
ted Journey* filmak ere harrera ona izan zuen  
(280 ikusle) eta baita Tarantinoren *Django  
Unchained* filmak ere (277 ikusle). Era bere-  
an, nabarmentzekoa da *Zipi&Zape* eta *Kani-*



*karen kluba* izan zela saio bakar batean ikus-  
le gehien batu zituen filma. 220 ume eta 58  
nagusi joan ziren domekan umeentzako zi-  
ne emanaldien ordutegian eman zuten zine  
emanaldira.

## Zugarramurdira familia irteera antolatuta du Atxutxiamaikak

Elgoibarko Izarraren Atxutxia-  
maika aisialdi taldeak familia irteera  
antolatuta du Zugarramurdira (Nafa-  
rroa) apirilaren 5erako, egun horre-  
tan Euskal Titiriteroen topaketak  
egingo direlako han. Apirilaren 1a ar-  
te egongo da izena emateko auke-  
ra. Interesatuak zortzi euro ordaindu  
beharko dituzte (zazpi euro, bazkide  
direnek) eta izena emateko bi bide  
dituzte: Elgoibarko Izarrak Ubitarte  
kalean daukan bulegotik pasatu  
edota [www.elgoibarkoizarra.com](http://www.elgoibarkoizarra.com)  
webgunearen bidez egin izenema-  
tea. Dirua honako kontu korronte  
honetan sartu beharko dute: 2095  
5036 58 1070736292. Informazio  
gehiagorako: 943 741 626 (Mikel) /  
[aisialdia@elgoibarkoizarra.com](mailto:aisialdia@elgoibarkoizarra.com).

## Barañaingo Luis Morondo musika eskolako ikasleen kontzertua, Elgoibarren

Barañaingo Luis Morondo mu-  
sika eskolako piano eta akordeoi  
ikasleek kontzertu bana eskainiko  
dute gaur zortzi, hilaren 3an, Elgoi-  
barren. Musika Eskolako auditorio-  
an izango da piano ikasleen kon-  
tzertua, 19:00etan, eta orduerdi  
beranduago hasiko da akordeoi  
ikasleen kontzertua, Herriko Antzo-  
kian. Orkestra txikiak joko du au-  
rrera, seikote batek gero eta lau-  
kote batek ondoren. Horiek buka-  
tutakoan Luis Morondo Orkestra  
Txikiaren txanda izango da, eta  
kontzertua bukatzeko, Barañaingo  
akordeoi ikasleek eta Elgoibarkoek  
elkarrekin joko dituzte hiru pieza.  
Ez da lehenengo aldia elkarrekin  
ariko direna, aspaldikoa baita Ba-  
rañaingo Luis Morondo musika es-  
kolako akordeoi jotzaileen eta El-  
goibarkoen arteko harremana,  
Maite Janeiro irakaslearen esane-  
tan. Besteak beste, Sabadellen  
(Katalunia), Beran, Barañainen eta  
Elgoibarren bertan ere aritu izan di-  
ra aurrez elkarrekin.

## Gazte ekimenetarako diru laguntzak eskatzeko epea ireki du Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak onartu ditu gazteen ekimenetarako diru laguntzak, eta eskaerak aurkezteko epea apirilaren 11n amaituko dela iragarri dute. 13 eta 30 urte arteko gazteek egin ditzakete eskaerak, eta onartuko dituzten ekimenak aurrera ateratzeko 4.000 euroko diru partida onartu du Udalak.

Haurrei, nerabeei eta gazteei “garatzeko aukera”, eta aldi berean, haurtzaroaz, nerabezeroaz eta gaztaroaz gozatzeko “aukera etengabea eta egonkorra” eskaintzea da diru laguntza deialdi honen helburua, Elgoibarko Udaleko Gazteria Sailak jakinarazi duenez.

Dagoeneko argitaratu dituzte diru laguntzak emateko oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta eskaerak aurkezteko epea apirilaren 11n amaituko da. Gazteen ekimenak sustatzeko diru laguntza eskaerak Herritarrentzako Arreta Bulegoan aurkeztu behar dira, Udalaren Erregistro Nagusian (Santa Ana kalea, 2), astelehenetik barixakura, 9:00etatik 13:00etara.

Aurkeztutako proiektu bakoitzak 1.000 euroko laguntza jaso dezake gehienez, 4.000 euroko poltsa osotik. Informazio gehiagorako: [gazteria@elgoibar.net](mailto:gazteria@elgoibar.net) edo [gazteinformazioa@elgoibar.net](mailto:gazteinformazioa@elgoibar.net).

# IGOR LIZARRALDE

Lauko eskubaloi taldeko entrenatzailea



**Eskola kiroleko gaztetxoak entrenatzen hasi zen Igor Lizarralde 16 bat urterekin, eta orduan lotu zitzaion eskubaloiari. Euskadi mailako entrenatzaile titulua atera eta Sanlo eskubaloi klubean sartu zen. Hainbat eta hainbat talde entrenatu ditu ordutik, eta azken hiru urteetan senior nesken taldeko entrenatzailea da. Ohorezko Zilarrezko Mailara igotzea lortu zuten iaz, eta estreinakoz jokatu dute aurten maila horretan. Mailari eusteko helburuarekin hasi zuten denboraldia, eta lortu dute. Denboraldiko balorazio bat egiteko eskatu diogu Lizarralderi.**

**“Iazko lorpenaren ostean, lasai erretiratu naiteke”**

**Iaz igo zineten Zilarrezko Ohorezko Mailara. Orain arteko lorpenik garrantzitsuena izan da zuretzat?**

Bai, sekulakoa izan zen. Hainbeste urtez lan egin ostean, lortu genuen! Niretzako orain arteko saririk onena izan da, dudarik gabe. Iazko lorpenaren ostean, lasai erretiratu naiteke.

**Inoiz jokatu duzuen maila gorenean jokatu duzue estreinakoz. Zein helbururekin hasi zenuen denboraldia?**

Mailari eustea zen helburua. Dena berria zen guretzat: distantzia luzeagoak, maila handiagoa... ez genekien nola erreakzionatuko genuen, baina oso ondo joan da. Kanariar Uharteetan jokatu genuen partida izugarria izan zen. Denboraldi hasieran joan ginen asteburu pasa hara, eta taldea sendotzeko balio izan zigun bidaiak. Partida desastre irten zitzaigun, baina beste balore batzuk landu genituen. Azkenean seigarren amaitu dugu denboraldia, eta Euskal Herriko taldeen kontrako partidak irabazi egin ditugu, gainera. Hori positiboa izan da. Helburua bete dugu Ligan, eta balorazio positiboa egiten dut. Orain geldialdi bat egingo dugu, eta gero Gipuzkoako Kopa jokatuko dugu.

**Zenbat lagun zaudete taldean?**

Hamabost gara guztira. Laupabost jokalarik taldea utzi zuten iazko denboraldi amaieran, eta bagenekien urte zaila izango zela. Hala ere, bazetozen beste hiru jokalarik, eta jubenilei esker, talde ona izan dugu. Lau bat jokalarik izan ditugu jubeniletatik gora eta behera, eta horrek izugarri lagundu digu. Herri txiki batego kluba gara, eta harrobia oso garrantzitsua da. Jokalarik batzuk Eibarkoak edo Ermukoak dira, baina nik Elgoibarko kontsideratzen ditut denak, hainbeste urte daramatzate hemen... Gehienak unibertsitatean daude, batzuek, gainera, kanpoan pasatzen dute aste guztia eta ostiraletan bakarrik etortzen dira entrenatzera. Jubenilekin batera entrenatzen dugu, talde batak besteari laguntzeko. Eurak ere oso gustura etortzen dira gurekin jokatzerara.

**Mailaz igotzea erronka handia izango zen ekonomikoki klubarentzat. Nola hartu zuten?**

Oso ondo! Senior mutilak eta gu gauden mailetan jokatzeke diruz handia behar da, baina klubak babes osoa eskaini digu hasieratik, eta eskerrak eman behar dizkiogu. Arbitrajeak, bidaiak... garestiak dira. Lauko patrozinatzaileari ere eskerrak eman nahi dizkiot, aurtengo denboraldian oso ondo portatu delako gurekin. Kanarietara gurekin etorri ziren, afari eder bat ordaindu ziguten, eta pila bat lagundu digute. Zaletuak ere eskertu behar ditut, jende asko etortzen delako gu animatzera.

**Zer eman dizu Sanlok?**

Denbora asko kentzen dit, baina satisfazio handia ematen dit, bestela ez nintzateke hemen egongo horrenbeste urtean. Jende pila bat entrenatu dut urte hauetan, eta talde guztiekin oso ondo moldatu izan naiz. Emaizta onak lortu ditut, oro har, baina onena, dudarik gabe, zenbait jokalarirekin daukadan harremana izan da. Orain del urte pila bat infantiletan entrenatu nituen batzuekin afa-riak egiten ditut oraindik eta hori sekulakoa da niretzat!

**Datorren urtera begira zein da zuen helburua?**

Aldaketaren batzuk egongo dira taldean, baina printzipioz taldea mantenduko dugu, eta berriz ere, mailari eusteko asmoz ekingo diogu denboraldiari.

# Apirilaren 6an jokatuko dute Jose Gurrutxaga krosa

Elgoibarko eta Mendaroko ikasleek hartu dezakete parte

**E**lgoibar Ikastolak antolatuta, Jose Gurrutxaga krosa jokatuko dute apirilaren 6an. Adinaren arabera banatuko dituzte ikasleak, eta guztira hamahiru lasterketa izango dira. 10:30ean hasiko dira lasterketak, eta 12:00etan jokatuko da nagusien proba. Elgoibarko eta Mendaroko ikasleek hartu dezakete parte lasterketa guztietan, eta baita nagusien lasterketan ere. Azken honetan, 1997. urtea baino lehen jaiotako guztiek hartu dezakete parte. Lasterketen ostean sari-banaketa egingo dute, Kalegoen plazan.



## Apirilaren 13an egingo dute Elgoibarko Enduro motor proba



Urnobitza moto-klubak Elgoibarko Enduro motor proba antolatu du apirilaren 13rako. Bost bat urteko etenaren ostean, iaz berreskuratu zuten proba hau, eta aurten ere Euskal Herriko Enduro Txapelketarako proba puntuagarria izango da. Iaz Euskal Herriko eta Espainiako ehun bat motorzalek hartu zuten parte, eta aurten ere beste hainbeste espero dituzte antolatzaileek. Mintxetako parkinetik abiatuko dira gidariak, eta 30 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute, han inguruko mendietan zehar. 9:00etan hasiko da lasterketa, eta 14:30 alderako amaituko dute.

## Oionetik Bermeora mendi bizikleta irteera antolatu du Morkaikok maiatzaren 1eko jai-zubirako

Morkaiko mendizale elkarteak lau eguneko mendi bizikleta travesia antolatu du maiatzaren 1eko jai-zubirako. Garai bateko merkatariek ardoa arrainaren ordezkatzeko erabiltzen zuten bidea egingo dute, lau egunean. Bazkideek 100 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 110 euro. Autobuseko joan-etorria, motxilak eramateko erabiliko den furgoneta, hiru gauetako loa, afariak eta gosariak sartzen dira prezioan. Izena emateko azken eguna apirilaren 14a izango da. Informazio gehiagorako [www.morkaiko.net](http://www.morkaiko.net) webgunea kontsultatu daiteke.



## EMAITZAK

### FUTBOLA

Sodupe 1 – Haundi 1 (3. maila)  
Ikasberri 2 – Elgoibar 0 (Erreg.)  
Mariño 5 – Elgoibar 0 (Neskak)  
Elgoibar 1 – Tolosa 1 (Jub.)  
Lagun Onak 0 – Elgoibar 3 (Kad. A)  
Zarautz 4 – Elgoibar 1 (Kad. B)  
Elgoibar 3 – Kostkas 0 (Lehenengo inf.)  
Martutene 4 – Elgoibar 0 (Inf. txiki)  
Aloña Mendi 3 – Elgoibar 4 (Ale.)

### ARETO FUTBOLA

Concepto Egile Elg. 6 – Labastida 3 (2B)  
Goierri 2 – King-Kong Elg. 3 (Jub.)

### ESKUBALOIA

Lauko Elg. 18 – Beti Onak 34 (Sen. nesk.)  
Gabaz Elg. 28 – Irun 34 (Sen. mut.)  
Alcorta Elg. 28 – Santoña 21 (Sen. mut.)  
Beristain Elg. 25 – Hondarribi 23 (Jub. mut.)  
Pulpo 22 – Murgil Elg. 16 (Kad. nesk.)  
Pneumax/Txariduna Elg. 31 – Usurbil 38 (Kad. mut.)  
San Roke Elg. 20 – Aloña Mendi 14 (Inf. nesk.)  
Usurbil 6 – Cometel Elg. 27 (Inf. nesk.)  
Amenabar 29 – Deca Elg. 18 (Inf. mut.)  
Urnieta 13 – Ikus Elg. 25 (Inf. nesk.)  
Leizaran 12 – Bankoa Elg. 20 (Inf. mut.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 29

12:30 Elgoibar – Zumaia (Inf. Txiki)

15:30 Elgoibar – Aloña Mendi (Inf.)

17:00 Elgoibar – Tolosa (Erreg.)

Domeka, 30

10:00 Elgoibar – Aurrera (Kad. B)

12:00 Elgoibar – Tolosa (Kad. A)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 29

11:00 Ikus Elg. – Bidasoa B (Inf. nesk.)

12:15 Bankoa Elg. – Legazpi (Inf. mut.)

16:00 Tecnifuelle Elg. – Bera Bera (Jub. nesk.)

19:00 Murgil Elg. – Lavandería (Kad. nesk.)

Domeka, 30

9:30 Elgoibar – Eibar eskubaloia (Ale. nesk.)

10:30 Elgoibar – Pulpo (Ale. mut.)

11:30 Elgoibar – Legazpi (Ale. mut.)

12:30 Elgoibar – Legazpi (Ale. nesk.)

### ESKU PILOTA

Barixakua, 28

21:30 Lagunak – Arrasate (Jub.)

**LANA**

**ESKAERA**

- Gizon arduratsua lan bila: Sukaldari laguntzaile, garbiketa lanak egiten, adinekoak zaintzen... Paperak legez ditut. ☎ **631 053 415**
- Emakumea lan bila. ☎ **631 203 287 / 622 037 598 (Wilma)**
- Emakumea lan bila: zerbitzari, dendako laguntzaile... ☎ **688 901 667 / 943 530 908**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Orduka. Esperientziaduna. ☎ **690 925 929**
- Emakumea adinekoak edo ezinduk zaintzeko prest. Gauez ere bai, etxean zein ospitalean. Ibilgailua daukat. ☎ **602 561 469**
- Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Esperientziaduna. Zaharren egoitzetan lan egingo nuke. ☎ **631 203 287**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Esperientzia handia. ☎ **636 977 615**
- Emakumea lan bila. ☎ **602 186 462**
- Emakumea lan bila. ☎ **646 464 300**
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Orduka edo interna. ☎ **631 102 186**

- Gizonezkoa lan bila: igeltsero, zerbitzari, lorezain, soldatzaile... Nagusiak zaintzeko ere prest. ☎ **622 321 095 / 631 506 108**
- Emakumea lan bila: nagusiak edo umeak zainduko nituzke. Erizain laguntzaile titulua dut. Interna edo orduka. ☎ **680 226 039**
- Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko. Geriatria laguntzaile ikasketak ditut. ☎ **646 931 162**
- Pertsona nagusiak zaintzen egingo nuke lan. Egun erdiz, orduka edo asteburuetan. Interna egoteko ere prest. ☎ **680 121 252**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko, eta garbiketa lanak egiteko. ☎ **636 247 429**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko, eta garbiketa lanak egiteko. ☎ **664 009 684**
- Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egin eta adinekoak zaintzeko. Goizez. ☎ **617 571 210**
- Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egin eta adinekoak zaintzeko. Orduka. Asteburuetan ere bai. ☎ **628 524 420**
- 35 urteko emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna. ☎ **602 865 726**

**ESKAITZA**

- Sukaldari laguntzailea behar dugu, asteburuetan taberna lan egiteko. ☎ **678 327 265**

**ETXEBIZITZAK**

- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **637 799 659**

**PARTIKULARRAK**

- Ingeles klaseak ematen ditut etxetz-etxe, maila guztietan. ☎ **680 319 002**

**KINTOAK**

- 1974an jaiotakoek bazkaria egingo dute maiatzaren 17an, Sigma jatetxean. 13:00etan batuko dira, Kalegoen plazan. Luntxa, bazkaria, argazkia eta DJa izango dituzte. Interesatuak 45 euro ordaindu behar dituzte, maiatzaren 8rako. Laboral Kutxa: 3035 0007 21 0071128773

**Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.**

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **22€** (salmenta). Autoak saltzea: **18€** - Klase partikularrak: **10€** - Bestelakoak: **10€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.
- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **15€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€** - Klase partikularrak: **8€** - Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



**- Gure eraikinaren estaldura oso egoera txarrean dago, eta hori dela eta, itokin asko izaten ditugu ganbaretan. Ni gorengo etxebizitza batean bizi naiz, eta azken aldian, gure etxean ere hasi da ura filtratzen, eta ondorioz, hasi da hormetako pintura harrotzen ere. Azkeneko batzarrean eraikinaren estaldura konpontzea erabaki genuen, baina nik etxe barruan egindako kalteak konpontzea eta margoa harrotu den gelak margotzea eskatu nien. Zenbait bizilagunek, baina, ezetza eman zuten, eta ondorioz, ez du aurrera egin nire eskerak. Exijitu diezaiek etxe barruko kalteak konpontzea?**

Legeak dio komunitateari dagokiola eraikina bizitzeko moduko baldintzetan mantentzeko behar diren konponketa guztiak egitea. Horregatik, eraikinaren beraren eta hango elementu amankomunen kontserbazio egokirako egin behar diren konponketa guztiak egitea derrigorrezkoa da, eta lan horiek egiteko ez dago batzarren onepena izan beharrik.

**Gomendioa: Etxe barruan izan dituzun kalteak konpon ditzatela exijitu ahal izateko, garbi geratu beharko da kalte horiek estaldura egoera txarrean izatearen ondorio direla.**

**ROSA Mª PINTADO:** Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Jon**, domekan urtetxo bat egin zenuelako. Patxo potolo bat etxekoan, eta bereziki, Markel, Jakas, Elene eta Paularen partez.



• Zorionak, **Ane Ebxartel** 7 urte! Prestatu merendola ona, ospatu egin behar duguetala! 7 muxu potolo, Jone, Maddi, Mikel eta etxekoan partez.



• Zorionak aittitta **Anttoniori** bihar bere eguna delako. Tirakada asko belarrietatik, etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Elsa**, astelehenean zure eguna izango delako. Muxu pila bat eta lau tirakada belarritik. Etxekoan, eta bereziki, Unairen partez.



• Zorionak, **Jon**, hilaren 25ean 7 urte bete zenuelako. Muxu handi bat, txapeldun!



• Zorionak, **Joxepa**, bihar 86 urte beteko dituzulako. Lagunen partez, ondo pasa!



• Zorionak, **pirata**, asteazkenean urteak bete zenuelako. Muxu handi bat familiakoan, eta bereziki, Intzaren partez.



• Zorionak, **printzesa**, eta muxu erraldoi bat zure 6. urtebetetzean. Familiako guztien partez.



• Atzo zure eguna izan zelako, zorionak, **Gozzane!** Zazpi muxu potolo, etxekoan partez.



• Zorionak, **Oier**, 3 urte egin dituzulako. Unaxen, eta etxekoan partez, muxu pila bat.




• Zorionak, **Danel!** Gaur 2 urte potolo, txapeldun! Muxu handi bat etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Oier!** Jada urtetxo bat! Orain arte bezala, irribarra lagun izan dezazula. Muxu potolo bat Intzaren partez.



• Zorionak, **amaxo**, astelehenean zure eguna izango delako. Urtzi eta Haizearen partez, muxu bat.



• Haunditzen, haunditzen... Zorionak, **Unax**, eta patxo haundi bat Enararen eta etxeko guztien partez.



• Zorionak, izeba **Maria Asun**, martxoaren 29an zure eguna delako. Oso berezia zara niretzat. Iloba Patxiren partez.



• Zorionak, **Nahia**, martxoaren 29an 7 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiako guztien partez.



• Zorionak, **Julen**, zure 10. urtebetetzean. Muxu handi bat familiakoan, eta bereziki, Naia eta Ikerren partez.



• Zorionak, etxeko **larrosa!** Astelehenean urte bat gure bizitzara etorri zinela. Patxo potolo bat, etxekoan partez.

ESKERTZA

AGUSTINA ARRIOLA IRIONDO



*Ama jatorra, langille fiña,  
pertsone eskuzabala  
urte luzetan familixa baten  
babeslia izan dana  
eskertzen dogu guregatikan  
egin izan dezun lana  
beti goguan izango dogu  
egindako ahalegiña  
Jakin ezazu, bihotz-bihotzez  
maitte zaittugu, amama.*

Zure familia



2014ko martxoaren 20an hil zen 89 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.

## 29 zapatua

### Azken zapatuko feria

9:00 Baserriko produktuen salmenta

Kalebarren plazan.

11:00 Pintxoan salmenta

Danborradako taldeak prestatuko ditu pintxoak, Kalebarren plazako txosnan.

12:00 Kale kantariak

Kalebarren plazatik irtengo dira.

12:30 Landaketa tailerra

12:00 Ganadu erakusketa

Aita Agirre plazan.

### Gozogintza

17:00 Pastel erraldoia

Muruamendiaraz gozotegiak eta Pastelak Taldeak antolatuta, pastel erraldoia egingo dute Kalegoen plazan.

18:00 Pastela eta txokolate banatzea

Pastela egin ondoren, herritarren artean banatuko dute. Kalegoen plazan.

### Barrikotea

21:00 Sagardotegi menua

Barrikotea egingo dute, Kimetz elkartean.

## 30 domeka

### Mendi irteera

9:30 Saibi mendira

Ikastolako familiek antolatuta, Saibi (946m.) mendira joango dira. Gaztetxe aurreko aparkalekuan elkartuko dira.

## 2 eguztrena

### Literatura

19:00 Toti Martinez de Lezea

Idazle arabarrak hitzaldia eskainiko du, Udal Liburutegian.

## 3 eguna

### Musika

19:00 Piano emanaldia

Barañaingo Luis Morondo musika eskolako piano ikasleen emanaldia. Musika Eskolako auditorioan.

### Musika

19:30 Akordeoi emanaldia

Barañaingo Luis Morondo musika eskolako akordeoi ikasleen emanaldia. Herriko Antzokian.

## 4 barixakua

### Bideo-forum

21:30 'Cosas que diría con solo mirarla'

Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du saioa. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Gaztelekuko ordezkarien asanblada igande honetan izango da, martxoaren 30ean. Gazteenak 17:00etan eta nagusiagoak 16:00etan



Errealeko museora eta Aquariumera irteeran izena emateko azken eguna, apirilak 3a. Plaza mugatuak

**BOTIKA ORDUTEGIAK:** 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
28 Yudego 29 Etxeberria 30 Etxeberria 31 Fernandez 1 Yudego 2 Zabaleta 3 Barrenetxea	Astelehenetik igandera  Yudego	Azkue (Eibar) Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)

\* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

**Fernandez** Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - Tel: 943 756 142

**Ibañez** Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

**Zabaleta** Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384

## ZINEA

### «Al encuentro de Mr. Banks»

28, barixakua: 22:15

29, zapatua: 19:00/22:15\* (VOS)

30, domeka: 19:00

1, astelehena: 21:30

### «Lego, la película»

30, domeka: 16:30

### «Nebraska»

(Ongarri zinekluba)

3, eguna: 21:30



**herritarrekin**  
martxan en marcha



 *Gipuzkoa*  
BERRIA



Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua



**PARTE HARTU  
ETA IRABAZI**

Parte-hartzaile guztien artean  
Mugi/Lurraldebus txartela  
kargatzeko 20 euroko bonoak  
zotz egingo ditugu.

 *Gipuzkoa*  
BERRIA

## GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZUA HOBETU NAHI DUZU?

56 herritan jasotako ekarpenak kontuan hartuta, autobus zerbitzuaren inguruko proposamena landu dugu. Orain, proposamen hori zure beharretara egokitzen ote den jakin nahi dugu. Etorri eta parte hartu zure herrian egingo den bileran edo egin ekarpena webgunearen bidez: [www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net)

**Apirilaren 10ean, 18:00etan, Elgoibarko Kultur Etxean.**



# LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



**ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA**

**ETENGABEKO ORDUTEGIA**



**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00etatik 22:00etara**

**Zapatuetan:**  
**10:00etatik 14:00 etara**

**Eibarko Dendarien Elkarte**  
ARANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ  
**Galdetuiguazu!**



**Doctor Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. Uekidako Unibertsitatea eta Madrilen. Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfonso X.a Unibertsitatea, Madril.** Implantologia Masterreko Irakaslea. Uekidako Unibertsitatea. Kirurgia Masterreko Irakaslea. Salamancako Unibertsitatea. Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

**Doctora Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.** Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.** Diplomaturia Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.** Hartz-Estetikan Diplomaturia. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.** Hartz-Estetikan Diplomaturia. **Avtrian Institutua, Bartzelona.** Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.** Oklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**

**MUTUAK ETA ASEGUURAK**

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, INIQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGON/STONEBRIDGE, AVANTASALUD, PADI...  
**Galdetuiguazu!**



**IRAZABAL**  
clínica dental

**FINANTZIAZIO BEREZIA**

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)